

Fontes

Linguae Vasconum

50 urte. Ekarpen berriak

euskararen ikerketari

Nuevas aportaciones al

estudio de la lengua vasca

Euskal hiztun berri gazteak
muda-prozesuan: ekintza-
ikerketa baten behinbehineko
emaitzak

ESTIBALIZ AMORRORTU, ANE ORTEGA,

JONE GOIRIGOLZARRI

Argitaratzaileak / Editores

Ekaitz Santazilia

Dorota Krajewska

Eneko Zuloaga

Borja Ariztimuño



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-iker- keta baten behin-behineko emaitzak

Basque young new speakers in a muda process: preliminary results from an action-
research study

ESTIBALIZ AMORRORTU

Deustuko Unibertsitatea
esti.amorrortu@deusto.es

ANE ORTEGA

Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola
aortega@bam.edu.es

JONE GOIRIGOLZARRI

Deustuko Unibertsitatea
jone.goirigolzarri@deusto.es

JASOA: 2019/07/31 | BEHIN-BEHINEAN ONARTUA: 2019/09/22 | BEHIN BETIKO ONARTUA: 2019/11/30

Artikulu honek Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzak finantzatutako euskal hiztun berrien inguruko ikerketaren eta AEIk (Agencia Estatal de Investigación) eta FEDERek (Fondo Europeo de Desarrollo Regional) diruz lagundutako «El neohablante como sujeto social» (erref. FFI2016-76869-P) ikerketa-proiektuaren emaitzen berri ematen du. Ikerketak COST Action – IS1306 «New Speakers in a Multilingual Europe: Opportunities and Challenges» sarean izandako eztabaidetatik edan du. Autoreak DU-Euskal Gaiak, ELEBILAB (IT983-16 – GIC 15/129) eta Deusto Valores Sociales (IT725-13) ikerketa-taldekideak dira, hurrenez hurren. Proiektu honetan parte hartu duten 21 ikerlari gazteei eta Iñigo Beitiari eskerrak eman nahi dizkiegu, ezinbestekoak izan baitira datu-bilketan eta analisisian.

LABURPENA

Artikulu honetan Bilbo Handiko unibertsitate-ikasle batzuk ikerketakide harturik egin dugun ekintza-ikerketaren partehartzaile baten aurkitutako emaitza batzuen berri ematen da. Zehazki, unibertsitate-eremuko euskararen erabilera handitzeko esperimentazio bat aurrera eramaterakoan partaideek izan dituzten zailtasunak eta gako mesedegarriak aztertzen dira, hala nola bakoitzak planteatutako erronkak arrakastaz aurrera eramateko erabili dituzten estrategiak. Emaitzek Bilbo-koaren moduko testuinguru nahiko erdaldun batean ere, unibertsitatea hizkuntza-mudarako –hau da, hizkuntza gutxituaren hiztun aktibo bihurtzeko– une egokia izan daitekeela erakusten dute, baina prozesu hori konplexua eta zailtasunez betea dela. Baldintza aproposak sortuta muda egiteko aukera egon daiteke. Ekintza-ikerketaren partehartzaileak hizkuntza-mudaren prozesuan suertatzen diren dinamikak sakontasunez ezagutzeaz gain aukera paregabea eskaintzen du muda egin nahi dutenek baldintza mesedegarriak izateko.

Hitz-gakoak: euskara; hiztun berriak; muda; gazteak.

ABSTRACT

This article presents the preliminary results of a research project studying university students who are new speakers of Basque endeavouring to become more active speakers of the minority language through a process of linguistic activation. Through action-research methodology in which participants become subject-researchers, the study identifies the difficulties encountered and the strategies implemented while performing the challenges they set themselves in order to use Basque more in their everyday life. Results show that University indeed has the potential to be a productive time for a linguistic muda, but they also show the complexity and difficulties of this. The study has also proven Participatory action-research methodology to be highly efficient to study such processes in depth.

Keywords: Basque language; new speakers; muda; the young.

1. Sarrera

Bilbon eta Bilbo Handian Euskal Herriko biztanleriaren zati handi bat bizi da (850.000 biztanle eskualdean, eta horietatik 343.000 Bilbo hirian). Biztanle-kopuruaren garrantziaz gain, ukaezina da Bilbo Handiaren eragin ekonomikoa eta soziala. Horregatik, eta euskararen etorkizunari begira, estrategikoa da Bilboko euskararen bizitasuna bermatzea.

Ez dago zalantzarik azken hiru hamarkadetan Bilboko euskararen egoerak, batez ere euskaldun-kopuruari dagokionez, hobera egin duela. Gaur egun ia lautik bat euskaraz egiteko gai da (Eusko Jaurlaritza, 2014), gehienak gazteak eta hiztun berriak¹ izanik. Bilbok euskaldunak irabazi ditu, batez ere, belaunaldi gazteen euskara-bidezko eskolatzeari esker; baina, hala ere, kaleko erabilerak oso baxu jarraitzen du: % 2,5 inguru (Soziolinguistika Klusterra, 2016).

Euskal hiztun berrien inguruko ikerketa batek (Ortega, Amorrortu, Goirigolzarri & Urla, 2016) erakutsi du euskaraz jakitea, gaitasun-maila altuan bada ere, ez dela nahikoa hiztun aktibo bihurtzeko, bereziki gazteen kasuan: 18 eta 26 urte bitartekoen artean % 50ek esan zuen gaztelaniaz hitz egiten duela beti edo ia beti, % 19k hizkuntza biak maila berean egiten dituela eta soilik % 9k euskara gehiago erabiltzen duela.

Euskararen aldeko hizkuntza-praktikak oztopatzen dituzten faktoreen artean honako hauek identifikatu ziren aipaturiko ikerketan: a) euskara ikasteko prozesua zelakoa izan den, irakaskuntza arautuan bakarrik ala baita sozializazioan (kalean) ere; b) hizkuntza erabiltzeko aukerak, testuinguru soziolinguistikoaren eta euskara-bidezko sareen araberakoak: zenbat eta testuinguru euskaldunagoan bizi edota euskara-bidezko sare esanguratsuagoak izan, hainbat eta handiagoa da euskara egunerokoan erabiltzeko aukera; c) hiztun berriek zelako hizkuntza-gaitasuna daukaten (bai objektiboa, bai eurek hautemandakoa), hizkuntza-maila oro har, ahozko jariotasuna eta euren behar komunikatiboak asetzeko behar duten aldaera-aldakortasuna eskuratu duten (Urla, Amorrortu, Ortega & Goirigolzarri, 2018), ikasketa-prozesuarekin loturik dagoena; d) euskararekiko kontzientzia eta jarrera proaktiboa, bereziki garrantzitsua hizkuntza gutxituen kasuan; eta e) euskarari dioten atxikimendu emozionala. Faktore horiek guztiek eragina dute hiztunaren autokontzeptuan, alegia, euren burua hiztun *on* legitimo bezala atzemateko orduan.

¹ Euskara familiatik kanpo ikasi dutenak.

Hiztun aktibo bilakatzeko hiztun berrien zailtasunak mahai-inguruetan eta elkarriketa sakonetan identifikatu ziren orduan. Artikuluan aztergai dugun ikerketan pauso bat harago joan eta hizkuntza-praktikak metodo etnografikoen bidez zuzenean behatzea erabaki genuen, elkarrekintzan hiztunek dituzten esperientziak hobeto ulertzeko asmoz. Aldi berean, ikerketa honen bitartez euskara erabiltzeko aukera asko eskaintzen ez duen testuinguruan (Bilbon), baina beste hizkuntza gutxituetako egoera batzuetan (Walsh & O'Rourke, 2014; Pujolar & Puigdevall, 2015; Puigdevall, Walsh, Amorrortu & Ortega, 2018) baliagarri suertatu den espazioan (unibertsitatean), euskal hiztun berri gazteei lagundu nahi diegu aukerak eta estrategiak sortzen euskara ere erabil dezaten.

2. Marko teoriko-metodologikoa

Ikerketaren helburu nagusia unibertsitate-ikasleek Bilbon euskara gehiago erabil dezaten laguntzea izanik, *muda* kontzeptu teorikoaz eta ekintza-ikerketa partehartzailearen metodologiaz baliatu gara, hurrengo azpiataletan azaltzen denez.

2.1. Muda

Muda (Pujolar & González, 2013) kontzeptu teoriko oso egokia da hiztun eleaniztunek euren hizkuntza-praktikak bizitzan zehar zelan aldatzen dituzten aztertzeko. Muda ('aldaketa' katalanez) gertatzen da hiztun batek lehen hitz egiten ez zuen hizkuntza bat bere hizkuntza-errepertorio aktiboan sartzen duenean, edo lehen pertsona edo egoera jakin batzuetan erabiltzen zuen hizkuntza aldatzen duenean. Hiztun jakinen hizkuntza-praktiketako aldaketek gizartean hiztun horrek bere burua aurkezteko eran ere aldaketak sor litzake, nahiz eta ez duen zertan ekarri adskribatze soziokultural edo etniko berririk (Pujolar & González, 2013; Pujolar & Puigdevall, 2015).

Hiztunek euren hizkuntza-biografiaren berri ematerakoan ohiko bizitza-une batzuk seinalatzen dituzte hiztun aktibo bizitzeko prozesuan aldaketa edo mudantza egiteko garrantzitsuak izan direnak. Normalean eguneroko bizitzan bizi ditugun aldaketekin bat etortzen dira, bizilekuz aldatzearekin, jarduera berriak egiteari ekitearekin edota harreman berriak egitearekin. Muda gerta daiteke, halaber, ez bizitza-une jakin bati lotua, baizik eta edozein momentutan, arrazoi ideologikoak eraginda, zehazki euskararen egoeraz kontzientzia hartu eta hizkuntza hori modu aktiboan erabiltzeko erabakia hartzen denean.

Kontzeptuaren sortzaileek (Pujolar & González, 2013) muda egiteko bizitzaren sei une identifikatu zituzten: (1) lehen hezkuntzako eskolan, (2) bigarren hezkuntzako ikastetxean, (3) unibertsitatean, (4) laneratzean, (5) bikotekidearekin harremana hasterakoan eta (6) guraso bihurtzerakoan. Euskararen testuinguruan, une horiek denak hiztun batzuentzat garrantzitsuak badira ere, honako hauek agertu ziren hiztun aktibo bihurtzeko erabakigarrien (Ortega *et al.*, 2016): (1) testuinguru oso euskaldun batera bizitzen joatean, (2) bikotekide euskaldun batekin hasterakoan, (3) guraso bihurtzerakoan, (4) sare berrietan edo jarduera berrietan sartzekoan, hala nola lagun berriak, lankideak, familia politikoa egiterakoan edota aisialdiko jarduera berrietan hasterakoan,

eta (5) bereziki garrantzitsua, kontzientzia hartzean, euskara erabiltzea norberaren erantzukizuna dela barneratzean. Arestian esan bezala, azken hori bizitzaren edozein momentutan gerta daiteke.

Aztertutako hiztun berrien artean batzuk hiztun aktibo bihurtu dira; aipaturiko uneez baliatu dira euren hizkuntza-praktiketan euskarari leku handiagoa emateko. Beste hiztun askok, alabaina, ez dute lortu hiztun aktibo bihurtzea, mesedegarri diren bizitza-zirkunstantziak ez direlako egon, edo, bizitza-unean baldintza egokiak egonda ere, ez dutelako une hori baliatu (Amorrortu, Ortega & Goirigolzarri, 2017; baita Ciriiza, 2019 ere). Aribidean daukagun ikerketa berri honetan muda egin nahi duten eta euskara erabiltzeko aukera asko ez duten gazteei euren hizkuntza-praktikak euskararen alde egiteko baldintza egokiagoak izaten lagundu nahi diegu. Horregatik, arestian aipatu bezala, beste hizkuntza gutxitu batzuen kasuan muda egiteko egokitzat erakutsi den unibertsitate-uneaz baliatu nahi dugu, Bilbo moduko testuinguru oso erdaldunetan, euskara erabiltzeko oztopobidetzat har daitezkeen testuinguruetan, hiztunen ehunekoa murrizta baita, euskara erabiltzeko aukerak sortzeko.

2.2. Ekintza-ikerketa partehartzailearen garrantzia: metodologia berritzailea

Ekintza-ikerketa parte-hartzailea (EIP hemendik aurrera, PAR ingelesez: *Participatory Action Research*) gizarte-ikerketa bideratzeko metodologia bat da, gizarte-aldaketa, eraldaketa, sustatzen duena aldi berean (Greenwood & Levin, 2006); hau da, ikerketa-metodo honek lan zientifikoa eta aktibismoa uztartzen ditu gizarte-aldaketaren alde.

EIPak ikerlariaren eta ikerketa-subjektuaren arteko harremana aldatzen du, ezinbestean: ikertutakoa (*subjektua*) ikerlari bihurtzen da, «ohiko ikerlariekin» batera ikerketakide, bere praktikaren behatzaile eta aztertzaile: datuak jaso eta datu horietaz gogoeta kritikoa egiten du bere moduko beste subjektu-ikerlari batzuekin batera elkarlanean, eta taldeko ikerlari guztien akonpainamenduaz² (Bucholtz, Casillas & Lee, 2016). Horrela, subjektu-ikerlariek dituzten ezagutzak, aurreiritziak, bizi izandako esperientziak eta ahotsak erdigunean jartzen dira. Eraldaketarako bidean, subjektu-ikerlariek *ikertu-ekin-hausnartu* prozesu ziklikoan parte hartzen dute: ikerketa egiten dute, aldaketak proposatu eta indarrean ipintzen dituzte eta gero horien arrakastaz gogoeta egiten dute, berriro zikloari ekinez. Eraldaketa bilatzen duen prozesu honetan bi osagaik aparteko garrantzia hartzen dute: gogoetak eta kolektiboaren elkarlanak. Etengabeko gogoeta kritikoa eragiten da eta taldearen babesa eta elkarlana bilatzen da. Horrela ezagutza zabaltzeko jarduna aldaketa bat sortzeko ahaleginekin uztartzen da.

Hurrengo atalean metodologia hau erabilia egin den ikerketaren berri ematen da.

² «Accompaniment is an ongoing, negotiated social process of learning to talk and work together, in which all participants contribute different forms of expertise and understanding and from which they benefit in different ways» (Bucholtz *et al.*, 2016, 27. or.).

3. Bilbo Handiko unibertsitate-gazteen muda-prozesuak: ikerketaren nondik norakoak

Atal honetan ikerketaren nondik norakoak azaltzen dira, zehazki ikerketaren helburuak, aztertu diren espazioak, partaideak eta ikerketaren diseinua.

3.1. Helburuak

Ikerketa honen helburuak honako hauek dira: 1) euskal hiztun berri gazteek unibertsitatearen testuinguruan dituzten hizkuntza-praktikak aztertzea; 2) hiztunek muda egiteko eta ez egiteko faktore giltzarriak zeintzuk diren zehaztea, eta unibertsitatean muda egiteak espazio honetatik kanpo ere muda orokorrago bat egitea errazten duen argitzea; eta 3) aztertzea unibertsitateko erabilera-aukerek zelan eragiten duten hizkuntza-gaitasunean, hizkuntza-identitatean eta hiztun berriek hiztun legitimo bezala daukaten autopertzepzioan, hala nola aipatutako hiru elementuok euskararen erabileran zelan eragiten duten. Artikulu honetan lehen bi helburuei buruz jardungo da.

3.2. Espazioak eta partaideak

Ikerketa landa-lana Bilbon egin da, Deustuko Unibertsitatean (DU) eta Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskolan (BAM). Bi unibertsitateen artean aldeak daude: DUN titulazio askotarikoak eta unibertsitate-maila askotakoak eskaintzen dira; gainera, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko eta atzerriko ikasleak ere ohikoak dira. Gaztelania irakas-hizkuntza nagusia izanik ere, graduiko ikasle guztien % 32k irakasgairan bat euskaraz hartzen du, ehuneko hori titulazio batetik bestera asko aldatzen bada ere. BAMen, berriz, Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntzako graduak bakarrik eskaintzen dira; ikasleen % 60 Bilbo Handitik dator, denak dira euskaldunak (sartzeko B2 maila eskakizuna dute) eta denek hartzen dituzte euskaraz gutxienez kreditu guztien % 60. Alabaina, ikasgelatik kanpo, kale-neurketaren metodologiarekin egindako neurketek euskararen erabilera apala erakutsi dute (% 10).

Ikerketan graduiko DUKo 12 ikaslek eta BAMEko 10ek parte hartu dute –14 neska dira eta 8 mutilak–. Gehienak Bilbo Handikoak eta hiztun berriak izan dira, ikerketaren aztergai zentrala baitira. Hala ere, beste profil batzuetako partaide batzuek ere parte hartu dute: euskara familia-bidezko transmisioan ikasita ere Bilbon bizitzeagatik euskara erabiltzeko zailtasunak dituztenak, eta testuinguru soziolinguistiko euskaldunetako gazteak. Azken partaide horiek kontraste-elementu bezala gonbidatu dira. Halaber, euskararenganako jarrera positiboa, erabileran aurrerapausoak egiteko erabakiak hartzeko prestutasuna eta ikerketa-proiektuan parte hartzeko motibazioa zeukaten partaideak bilatu dira.

3.3. Ikerketaren diseinua

Ekintza-ikerketa partehartzailearen oinarritzko printzipioei jarraituz, unibertsitateko mudaren inguruko ezagutza handitzeko eta subjektu-ikerlarien hizkuntza-praktiketan aldaketa bat sortzeko helburuarekin, unibertsitate bietako ikasleei hausnarketa soziolinguistikoa egiteko hiru hilabetean zeharreko prozesu baten parte hartzeko gonbita egin zaie. Lau jarduera nagusi egin dituzte:

1. Hizkuntza-biografia: banakako eta taldekako hausnarketa norberaren hizkuntza-biografia oinarri hartuta. Besteak beste, ondokoak landu dira: norberaren ibilbidean hizkuntza ezberdinek izan duten presentzia, hizkuntzen erabilera bizi izan dituzten trantsizio-uneak, euskararen erabilera lehen eta orain, eta euskararekin loturiko momentu oroigarriak.
2. Hizkuntza-praktiken behaketa: batetik, unibertsitateko egoera soziolinguistikoaren behaketa, eta bereziki hizkuntza eta aldaera ezberdinen presentzia, eta hizkuntza-hautua pertsona-mota eta unibertsitateko lekuaren arabera egiten den aztertuz; bestetik, norberaren praktiken behaketa, unibertsitateko egoerarako aipatu diren faktoreak kontuan hartuz, azken batez, mudarako aukerak unibertsitatean non/norekin egon daitezkeen identifikatzeko.
3. Lehen erronka: gazteek euskara denbora zehatz batez unibertsitatean gehiago erabiltzeko erronka bana proposatu dute, hala nola, astebeteko epean ikaskide jakin batzuekin euskaraz egitea, edo irakasgai jakin batean, edo ikaskideek osatutako WhatsApp-taldean, edo unibertsitateko bedel edota tabernako langileekin lehen hitza (edo denbora guztian, gazte ikerlariaren arabera) euskaraz egitea.
4. Bigarren erronka: lehen erronkan ikasitakoari buruz bakarka eta taldeka gogoeta eginda, eta prozesuaren zikloari berriro ekinez, beste erronka bat esperimentatu dute eta azken horren arrakastaz gogoeta egin dute.

Prozesu osoan zehar gogoeta kritikoari eta kontzientzia soziolinguistikoa garatzeari lehentasuna eman zaie, eta bakarkako datu-bilketa eta hausnarketa egin ondoren, talde osoaren akonpainamendua izan dute egin diren taldekako lau dinamiketan. Hitzun berri bakoitzaren erronkaren arrakasta gorabehera, gazte denek azpimarratu dute talde-dinamiken eraginkortasuna kontzientzia lantzeko eta hizkuntza-praktikak euskararen alde aldatzeko tresnak eskuratzeko.

Analisirako material bezala, taldeko lau batzar eta aurretik idatziz egin dituzten bakarkako lau ariketak ditugu, batzarretan eztabaidan laguntzeko idatzi ziren poster eta bestelako material idatziak, taldeko gogoeta bideratzeko dinamiken transkripzioa eta ikerlarien ohar etnografikoak, bai dinamiketan, bai unibertsitatean jasotakoak. Artikulu honetan azken hiruak erabiliko ditugu.

4. Emaitzak

Atal honetan ikerketaren behin-behineko emaitza batzuen berri ematen da.

4.1. Subjektu-ikerlarien erabilera-patroiak unibertsitatean

Bai artikulu honetako autoreek egindako etnografiak, bai subjektu-ikerlari gazteen behaketek espazio bietako ikasleen arteko hizkuntza nagusia gaztelania dela erakutsi dute. DUn, gainera, atzerritar hizkuntzek, bereziki ingelesak, presentzia nabaria daukate.

Hala ere, subjektu-ikerlari gazteek euren elkarrekintza-egoera zehatzak aztertu dituztenean testuinguru soziolinguistiko euskalduneko ikaskideekin («herrietako-

ekin», askotan esaten duten bezala) euskara gehiago erabiltzen dutela adierazi dute. Izan ere, euskara gehien egiten da solaskide guztiak herri oso euskaldunetakoak direnean. Jatorri mistoko solaskideak daudenean normalean gaztelaniara jotzen da eta hizkuntza hori nagusitzen da talde-elkarrizketan, binakako elkarrizketa laburretan euskaraz egiteko ohitura dutenek hizkuntza horri eusten badiote ere. Ikus partaide batek nola kontatzen duen talde-dinamikan berak behatutakoa:

- (1) Iraitz, DU: Ama hizkuntza euskara duten pertsonak nola hitz egiten duten euskaraz batzuekin eta beste batzuekin gaztelerez. Zeren nik egin dudanean ikerketa ikusten nuen nola gure klasean hitz egiten duten euskaraz eta bat-batean etortzen da beste norbait Bilbokoa dena eta aldatzen dute eta gaztelerez hasten dira hitz egiten³.

Testuinguru oso erdalduneko ikasleen artean unibertsitatera sartu aurretiko erabilera-patroiak mantentzen direla dirudi: salbuespenak salbuespen, irakasleari zuzentzeko bakarrik erabiltzen dute euskara, batzuek euskara-bidezko irakasgaiko irakasleari ere gaztelaniaz eginagatik. Taldekako lanak egiterakoan ere euskararen presentzia oso urria da euren artean: eztabaidak gaztelaniaz egiten dituzte eta euskarara momentu puntualetan baino ez dira pasatzen, eta lana idazterakoan.

Euskara bi unibertsitateetan gutxi erabili arren, Bilbo Handikoak diren gure partaide batzuek unibertsitatean sartzekoan hizkuntza gutxitua erabiltzeko aukera handiagoa sortu zaiela adierazi dute, batez ere, lehen aldiz izan dituztelako testuinguru soziolinguistiko euskalduneko eta euskara egunerokoan erabiltzen duten ikaskideak. Batzuek eguneroko hizkuntza-praktiketan aldaketatxoak egin badituzte ere ezin da esan benetako muda egin dutenik. Izan ere, testuinguru erdalduneko partaide ia guztiek egunerokoan unibertsitatean euskaraz komunikatzeko zailtasun handiak dituztela baieztatu dute. Esperientzia hori herri euskaldunetan bizi diren ikasleek ere partekatzen dute: unibertsitatean gaztelaniaren presio handia sentitzen dute.

Arestian esan bezala, Euskal Herriko leku ezberdinetako ikasleen presentziak euskara erabiltzeko aukera handiagoak eskain baditzake ere, joera Bilboko erabilera-patroiak erreproduzitzea da, eta hizkuntza hori nagusitzen da bi unibertsitateetako ikasleen praktiketan.

4.2. Muda-prozesua laguntzen edo oztopatzen duten faktoreak

Ikerketaren diseinuan azaldu bezala, partaideek norberaren hizkuntza-biografia eta unibertsitatean behatutako hizkuntza-praktiken inguruan gogoeta egin ostean euskararen erabilera handitzeko erronka bat planteatu dute, birritan. Erronka horien esperimentazioak hizkuntza gutxituaren aldeko aktibazioa oso prozesu konplexua dela eta prozesu horretan laguntzen eta oztopatzen duten faktoreak daudela erakutsi du.

³ Partaideen konfidentziasuna gordetzeko, ezizenak erabili dira. Bestalde, irakurleak kontuan hartu beharko luke transkripzioa ez dela fonetikoa, ortografia-arauei jarraituz egindakoa baizik. Hala ere, hiztunek erabiltzen duten aldaeraren ezaugarriak gorde dira, izan ahozko eta bat-bateko hizkuntzaren adierazgarri, izan tokian tokiko aldaeraren baten adierazgarri. Kode-alternantzia ere letra etzanan bidez markatu da. Partaideak darabilen aldaerak informazio garrantzitsua ematen du hiztun bezala duen auto-pertzepzioa ulertzeko, besteak beste.

Faktore giltzarri nagusietako bat partaideek euren hizkuntza-gaitasuna dela-eta daukaten iritzia da. Hiztun berrien lehenbiziko ikerketan (Ortega *et al.*, 2016) bezala, berretsi da hiztunen hautemandako gaitasunak, eta gaitasun horrekin eroso eta konfiantzaz sentitzen diren ala ez, berebiziko garrantzia duela euskara erabiltzerakoan. Testuinguru erdaldunetako partaide askok hiztegia falta dutela eta nahi luketen etorria ez daukatela adierazi dute; gainera, askok aipatu dute lagunarteko erregistrorik ere ez dutela. Gabezia horiek guztiek hizkuntza segurtasun-falta handia sortzen diete, bereziki *herrietako* euskaldunekin egoterakoan: alde batetik, hutsak egiteaz eta besteek haietaz zer pentsatuko arduratuta daude; bestetik, herrietako euskaldunek euskalkia erabiltzen dutenean ulertzeko gai ez izateko beldur dira⁴.

Euskalkiak ulertzeko zailtasunen auzia alde batera utzita ere, gazte ikerlarientzat batua baino ez jakiteak, hau da, lekuan lekuko aldaerarik ez izateak, eragin zuzena dauka euren autokontzeptuan, hau da, euren burua euskaldun *on*, benetako bezala hautemateko auzian; eta zein hizkuntza erabili aukeratzekoan. Izan ere, testuinguru erdaldunetako partaide askok herri euskaldunetako gazteei gaztelaniaz zuzentzea eta hizkuntza horretan komunikatzea nahiago dute. Horrela kontatzen du hurrengo partaidea:

- (2) Jorge, BAM: Nik uste dut batueran, erabiltzen baduzu, zara *como un guiri, o sea...* Joaten zara, ez dakit, herri batera euskara hitz egiten dutela eta zuk hitz egiten duzu batueraz eta zara *como un guiri*. Ni ez naiz sentitzen ondo, nahiago dut egin erderaz, *eres como un guiri. Es como principiante*. [...] *O sea*, ez dakit, ni ez naiz sentitzen oso *cómodo* hitz egiterakoan batuera beste herri batean. Adibidez Gernikan euskara batueraz hitz egiten.

Hizkuntza-hautaketan garrantzi handia izan duen beste faktoreetako bat solaskideak direla-eta izan dituzten iritzia eta aurreiritziak dira, haien janzkeran, egiten ari diren unibertsitate-ikasketetan (Euskal Hizkuntza eta Kulturako graduko ikasleak diren ala bestelakoak), bizitokian oinarritutakoak. Esate baterako, janzkeran «mendiko estetika» erabiltzea edota herri euskaldun batean bizitzea jarrera euskaltzalearekin lotzea ohikoa izan da, eta Bilbo Handikoa izatea eta euskara egunerokoan erabiltzera ohituta ez egotea euskararekiko jarrera urruneko edo gutxi interesatuarekin.

Solaskideen iritzia eta sentimenduak oso presente izan dituzte gure partaidea gazteek euren gogoetetan: zer pentsatuko duten besteek euskaraz eginez gero, deseroso sentituko ote diren, arraro egingo zaien, zorotzat hartuko ote dituzten eta abar ohiko kezka izan dira. Kezka horiek are handiago egin dira gure partaidea gazteek solaskideak gaztelaniaz erantzun eta gero eurek euskaraz egiten jarraitu dutenean, hau da, elkarrizketa elebidu-

⁴ Beste ikerketa batzuek ere erakutsi dute hizkuntza-ezaugarri jakinak, dela DOM (osagarriaren markapen bereizgarria) (Rodríguez-Ordóñez, 2016) dela kode-alternantzia (Lantto, 2018) lekuan lekuko aldaera bat erabiltzen duen eta, beraz, hiztun natibotzat hartzen den hiztunak erabili ala batua erabiltzen duen eta hiztun berritatz hartzen den hiztunak erabili, modu ezberdinean atzematen dela: lekuan lekuko aldaerarekin batera, lehen kasuan «euskaldun zaharrek ikasi duten euskara» edo lagunarteko erregistro adierazkorren erakusgarri bezala justifikatzen den bitartean hiztun berritatz hartzen den hiztunak erabiltzen duenean askotan gaitasun eskasarekin lotzen da. Rodríguez-Ordóñezek (2016, 224. or.) azpimarratzen duenez, horrek segurtasun gabezia handia sortzen du hiztun berriarengan eta euskara ez erabiltzera bultzatzen duen arrazoietako bat da.

netan, bata euskaraz bestea gaztelaniaz, aritu direnean. Hurrengo partaide honek bere bizipenak helarazten dizkigu:

- (3) Igor, DU: Eroa, apur bat eroa, ze saiatzen euskaraz egiten norbaitekin eta bera gaztelaniaz erantzuten, eta ni berriro euskaraz eta berak berriro gaztelaniaz. Edo bueno, normalean honekin gaztelaniaz egiten dut, orain nago etengabe euskaraz, *ahí jo ta ke*, agian pentsatuko du erotu naizela, edo ez dakit.

Harritzekoa da gazteek solaskideen pentsamendu eta sentipenak direla-eta erakutsi duten ardura, askotan euren gurari eta sentipenak bigarren mailan utziz, baita muda egiteko prestutasun eta motibazio handia izan dutenean ere. Horrek aztergai ditugun espazioetan gaztelaniaren *berezko* erabilera zenbateraino dagoen errotuta erakusten du. Partaide batek honetaz gogoeta egin du eta hizkuntza-eskubideak hierarkizatuta daudela ondorioztatu du: bere ustez, gaztelaniari eta ondorioz erdal hitzunei eskubide gehiago aitortzen zaizkie euskarari eta euskaldunei baino:

- (4) Maider, DU: Guk esaten dugu: jo, *es que* igual beste pertsona deseroso senti daiteke eta horregatik egingo diogu... *o sea*, hori, ba pertsona batek euskeraz egitea eta besteak gazteleraz. Eta esaten dugu: jo, *es que* igual beste pertsona gazteleraz egiten duena senti daiteke deseroso. Eta ni sentitzen banaiz deseroso berak egiten duelako gazteleraz? Hori ez dugu inoiz pentsatzen. Bai gaztelerak daukala eskubide gehiago.

Euskararen eta gaztelaniaren arteko asimetria erakusten duen ideologia berriro azaleratzen da lagunarteko elkarrizketan gertatzen den hizkuntzen txandaketari buruz gogoeta egin dutenean: gaztelaniatik euskarara pasatzea «natural» atzematen den bitartean, alderantzizko joera bortxatu bezala ikusten da, ez natural. Euskararen egoera gutxitu eta ez normalizatua da, Maider ezizena eman diogun gazte honen iritiz, ezberdintasun horren arrazoia.

- (5) Leire, UD: Nik uste dot euskeraz aritzea eta lantzean behin gazteleraz edo apur bet, zeozer esatia edo, ez dala hain gatzia bestia bezala, besteagaz konparatuta, bai. Niri adibidez gertatu zait ba klaseko bategaz beti ein dodala euskeraz eta badekogu justo irakasgai bet gazteleraz eta klaro, bazagoz gazteleraz pentzetan ta esan nion ez dakit zer gazteleraz, ez naz gogoratzen, eta ez zitzaidan hain arraro ein. Baina justo kontrakua pasatu bazan, beragaz gazteleraz eingo banu normalian ta euskeraz bapatian, igual bai izango zan talka gehio edo, ez dakit.

Moderatzailea: Eta zergatik hori? Zertan da ezberdina? Hizkuntza batetik bestera pasatzea da, elebidunak gara, denbora guztian ari gara batean zein bestean... Zergatik egiten da arraroa?

Maider, UD: Ez dagoelako normalizatuta gure gizartean, edo behintzat gure inguruan. *O sea*, hemen euskara da gutxiengo.

Azkenik, bada beste faktore giltzarri bat, etengabe agertu dena partaideek euren muda-prozesuari buruz hausnartu dutenean: emozioak, bai positiboak (poza, ilusioa, *subidoia*, harrotasuna eta abar), bai negatiboak (lotsa, arraro sentitzea, etsipena, de-

sengainua, frustrazioa eta abar). Emozioak hizkuntza gutxituarekin zein hiztun aktibo bihurtzeko ahaleginekin lotuta izandako esperientzia guztietan egon daitezke: muda egiteko gazteek aurretiaz daukaten motibazioan, hizkuntza baten edo bestearen alde hizkuntza-hautua egiteko gogo-aldartean, mudari eusteko irmotasun eta pertseberantzian, lortutako emaitzaren pertzepzioan. Emozioen eraginean beste argitalpen batzuetan sakonduko dugu, gai hori artikulu honen helburutik kanpo dago-eta.

4.3. Muda-prozesua errazten duten estrategiak

Ikasleek egin dituzten esperimentazioek, bi erronkek, erakutsi dute muda-prozesuaren arrakasta, motibazio handia izanik ere, ez dagoela bermatuta eta, izan ere, zailtasun handiak daudela aurrera eramateko. Horregatik, prozesu hori baldintzatzen duten gakoetz gain garrantzitsua izan da bultzatzen estrategiei buruz gogoeta egitea. Hauexek dira partaideek identifikatu dituzten estrategia mesedegarriak.

Alde batetik, erronka-esperimentua norekin egin nahi zuten erabakitzea. Gazte batzuek egunerokoan euskara erabiltzen duten pertsonekin egitea erabaki dute, edo euskararekiko jarrera ona dutenekin:

- (6) Maider, UD: Ez da gauza bera euskaraz ondo moldatzen den edo euskararekin eroso sentitzen den pertsona batekin euskaraz egitea edo kontrakoa izatea. Pertsona hori deseroso sentitzen bada edo, ez dakit. Berak jarioasuna badauka edo errez egiten badu, *o sea* nik uste dut askoz errezagoa dela. Bestela da ahalegin doblea, nirea eta berea.
- (7) Igor, UD: Badira nolabait euskararekiko konpromisua hartzen dutenak euskaraz saiatzen, euskaraz egiten saiatzen direnak. Nik behintzat ikusi dut horiek direla benetan euskaraz egiten saiatzen diren bakarrak.

Partaideek azpimarratu duten beste estrategia bat konfiantza-espazioak eta solaskideen arteko konplizitatea sortzea izan da. Horrela, batzuek erabaki dute solaskideei jakinaraztea hiztun aktibo bihurtu nahi dutela. Gehienetan, hori jakindakoan, solaskideek modu kontziente eta aktiboan lagundu diete.

Pertseberantzia, jarraitutasunarekin batera, da arrakastari begira indar handiz agertu den beste gakoetako bat: apurka-apurka, urrats txikiak ematea pixkanaka-pixkanaka handiagoak burutzeko. Partaideak eurak konturatu dira nahiko inozoak izan direla gaztelania jaun eta jabe, hizkuntza hegemonikoa den testuinguruan hizkuntza-ohitura modu egonkorrean alda daitekeela aurreikusi dutenean. Zentzu horretan, jarraitutasunari lotutako pertseberantzia giltzarria izan da. Horrela, eraginkorra suertatu zaie elkarrizketa luzeen ordez elkarrekintza laburretan hastea, gai intimoen ordez akademikoen inguruan jardutea, eta guztiekin egin ordez pertsona jakin batzuekin hastea. Zentzu berean, eta *dena ala ezer ere ez ez* dela oso errealista ikusita, partaideek kode-alternantziaren (*code switching*) eta elkarrizketa elebidunen alde (solaskide bakoitza hizkuntza baten arituz) jokatu dute, elkarrekintzetan euskararen presentzia bermatzeko estrategia bezala. Konfiantza falta duten partaideen kasuan bereziki baliagarria da gaztelania sartzea, betiere euskarari eusteko eta apurka-apurka etorri handiagoa eskuratzeko asmoz, hurrengo partaideak azpimarratu duenez:

- (8) Iraitz, UD: Nik erabiltzen dut egunero hori. [...] Beti erabiltzen dut gaztelera *en plan* esamoldeak esateko edo horrelakoak beti. Eta baina konturatu gabe, igual errezago egiten zait gaztelera esatea gauza bat eta esaten dut, baina gero bueltatzen naiz euskarara eta gero hurrengo gaztelera. [...] Baina horrela hobeto sentitzen naiz. Batzuetan esaten dut, «bua! ez dakit hau esaten, esango dut gaztelera eta horrela jarraituko dut euskaraz» eta blokeatu egiten banaiz esaten dut, «venga, hau euskaraz eta jarraituko dut gaztelera». Eta orduan nahiago dut erdi euskara eta erdi gaztelera egitea gaztelera guztia egitea baino.

Kontuan hartu behar da gazteen artean euskara-gaztelania kode-alternantzia gazte-hizkera propiotzat hartzen dela (Ibarra, 2011; Elordui, 2016; Lantto, 2018) eta zentzu horretan gazteen identitatea markatzeko ere balio dezakeela kode-alternantziak. Muda-prozesuari begira, segurtatu behar da euskarak presentzia nahikoa daukala eta kode-alternantzia eta elkarriketa elebidunak apurka-apurka gero eta euskara gehiago egitearen mesedetan bultzatzen direla.

Azkenik, besteek norbera euskararekin lotzea ere lagungarria dela baieztatu dute partaide batzuek, horrela hiztun berriak euskaraz egiteak ez baititu harritzen solaskideak eta berek ere hasieratik euskaraz egitea laguntzen baitu. Baina zelan bihur daiteke hiztun berri gazte bat euskararen *sinbolo?* Zelan sortzen da asoziazio hori? Lelodun kamiseta edo estetika jakin bat izatea bezalako sinboloen erabileraz gain, giltzarri izan daiteke apurka-apurka euskarazko esapideak sartzea diskurtsoan. Hurrengo partaideak estrategia horren berri ematen digu:

- (9) Iker, UD: Nik uste dut pixka bat, lehenengo klabeak izan ahal direla hastea esaten agurrak eta eskerrak ematea; euskeraz hastea. Eta gero azkenean jendeak ikusten du zu euskalzalea zarela, ze ez duzu esaten «*gracias*», esaten duzu «eskerrik asko», ez duzu esaten «*buenos días*» edo «*hola*», esaten duzu «egun on, aupa, kaixo». Orduan hasten zara hor, jendea hasten da ikusten zu euskalzalea zarela eta nik uste dut hor alda daitekeela; pauso bat izan daitekeela aldatzeko.

4.4. Eta esperientziaren amaieran non daude?

Esperientziaren balorazioa egiterakoan, ikerlari gazte gehienek izandako hiru hilabeteko prozesuan aurrerapausoak egin dituztela eta «asko ikasi dutela» esan dute. Alde batetik, euskararen egoeraz egindako gogoetak, bai banakakoak, baina batez ere taldekakoak, unibertsitateko erabilera orokorraz, euren hizkuntza-praktikez eta muda egiteko dauzkaten zailtasunez eta faktore mesedegarriez kontzienteago izaten lagundu die. Gainera, arestian azaldu bezala, lehen esperientziaren ondoren eginiko eztabaidak eta taldekako hausnarketek bigarrenako erronka errealistagoak, egokiagoak planteatzen lagundu diete batzuei; beste batzuei indarra eman diete bigarrenean aurrerapauso handiagoak egiteko eta erronka zailagoak hartzeko.

Bestetik, euren hizkuntza-praktiketan gehienek aurrerapausoak egin dituztela uste dute, sumatutako esperientzien arrakasta askotarikoa bada ere: % 10etik % 90era baloratu dute. Alabaina, muda burutu dutenik ezin liteke esan, batzuek aurrerapauso nabariak egin badituzte ere.


Edozein kasutan, euskararen aktibazioari dagokionez, denek sentitzen dute gorantzako garapenean daudela, bidea ez dagoela amaituta eta muda-prozesu horretan jarraitu nahi dutela. Esperientzia ezin hobeto baloratu dute gazteek eta ekintza-iker-keta proiektuan jarraitzeko prestutasuna erakutsi dute. Horren guztiaren erakusgarri da ikerlari gazte batek azken saioan egin zen dinamikan bete zuen fitxa (ik. 1. irudia).

1. IKERKETAREN AMAIERAN ZELAN SENTITZEN NAIZ?

Gehitu emotikono bat eta adjektibo bat edo gehiago.



2. HIZTUN AKTIBO BILAKATZEKO PROZESUAN NON NAGO?



3. HEMENDIK ETA IKASTURTEA AMAITU ARTE ZURE

PROZESUAK ZEIN IBILBIDE IZATEA AURREIKUSTEN DUZU?

Intentzioa onena gero eta eraginkorago pertsonal ematen gero, hitzaren aktibitate bilakatzea. Prozesuan gora joan egongo naizela uste dut. Bada ere, esan horrela jarraitzen badu, nire jentilki aditu jami behar du hitzaren aktibitate berritzea.

1. irudia. Laugarren saioan batutako material idatzia (Larraitz, BAM).

Irudian ikusten den bezala, keinu positiboa egiten duen emotikonoa ipini eta «pozik eta animatuta» idatzi du Larraitzek. Prozesua adierazten duen eskilaran hiru maila igo ditu. Azkenik, etorkizunari begira jarraitzeko intentzioa azaldu du, kontzientea bada ere ahaleginak egin beharko dituela eta ez dela beti erraza izango. Larraitzek bere prozesuaz hausnarketa egiteko gai dela argi erakutsi du.

5. Ondorioak

Euskararen garapenari begira hiztun berriek, euskara familiarik kanpo ikasi dutenek, talde estrategikoa osatzen dute, bereziki gazteen kasuan. Belaunaldi gazteagoetan euskaldun-kopurua nabarmen igo da baina ez, maila berean behintzat, erabilera, batez ere euskaldunak gutxi diren hiri eta herrietan; Bilbon eta Bilbo Handian euskararen erabilera zabaltzea ezinbestekoa da eta helburu hori betetzeko gazteak funtsezkoak dira.

Artikulu honetan gazteak erdigunean jartzen dituen ekintza-iker-keta proiektu baten berri eman da: DUko eta BAMEko 22 gazte euren unibertsitateko hizkuntza-praktiken

ikerlari bihurtu dira, autobehaketa eta horren inguruko gogoeta egin dute, euskara erabiltzeko zailtasunei aurre egiteko eta euskaldun aktibo bihurtzeko asmoz. Unibertsitateko egoera zehatzetan hizkuntza hautatzeko dinamikak eta gazteek honezkeroko dituzten hizkuntza-ohiturek erakutsi dute muda egiteko prozesua oso konplexua dela, zailtasunak badaudela baina, hala ere, prozesu horretan, eta unibertsitatearen eremuan, aurrerapausoak egiteko aukerak sor daitezkeela, batez ere gazteek euren hizkuntza-praktikak behatu eta gero horien (eta praktikok eragiten dituzten faktore mesedegarri eta oztopatzaileen) kontzientzia hartzen dutenean, eta akonpainamendu-dinamika batean, euren moduko gazteekin gogoeta partekatua egiten dutenean.

Emaitzak behin-behinekoak izanik ere, banakako gogoetaz gain proiektu partekatu baten barruan egin den bizitako esperientzia, sentimendu eta iritzien inguruko taldekako gogoetak emaitza pozgarriak erakutsi ditu: pozgarriak *ohiko ikerlariarentzat* eta euskalgintzako eragileentzat, muda-prozesuetan giltzarri diren faktoreak eta hizkuntza-ohiturak aldatzeko erabil daitezkeen estrategiak identifikatzen laguntzen digulako; eta pozgarriak, asebetetze handikoak, hiztun berri ikerlari gazteentzat, esperientzia oso modu positiboan baloratu baitute, gora beherak egonik ere, aurrera egiten ari direla sentitzen dutelako.

Horregatik, ekintza-ikerketan parte-hartzailearen egokitasuna azpimarratu behar da: erabilitako metodologiak erabilera aitortutik harago hizkuntza-praktiken euren behaketa eta gogoeta partekatuan sortutako datuak hartzen ditu abiapuntu. Horrela lortutako datuak oso aberatsak dira eta hiztun berrien muda-prozesuetako konplexutasuna aztertzeko egokiagoak dira inkesta kuantitatiboak eta aitortutako erabilera aztertzen dutenak baino. Gainera, metodologia honek, ezagutza zabaltzeaz gain, aldaketa sortzen laguntzen du: gazteek euren muda-prozesuan aurreratzen ikustea ere pozgarria da.

Artikulu honetan hiru hilabete zeharreko esperientziaren berri eman dugu; Woolard (2011) antropologoak egin zuen bezala, eta muda arrakastatsuak prozesu luze baten ondorio direla kontuan hartuta, gazte taldeari jarraipen longitudinala egitea komeni da, ikertu-ekin-hausnartu zikloari jarraituz. Alabaina, prozesuaren jarraipena argitalpen honen helburuetatik kanpo dago.

Erreferentziak

- Amorrortu, E., Ortega, A. & Goirigolzarri, J. (2017). Euskararen hiztun aktibo bihurtzeko gakoak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 104, 11-49.
- Bucholtz, M., Casillas, D. I. & Lee, J. S. (2016). Beyond empowerment: Accompaniment and sociolinguistic justice in a youth research program. In R. Lawson & D. Sayers (arg.), *Sociolinguistic research: Application and impact* (25-44. or.). Londres-New York: Routledge.
- Ciriza, M. P. (2019). Towards a parental muda for new Basque speakers: Assessing emotional factors and language ideologies. *Journal of Sociolinguistics*, 23(4), 367-385.
- Elordui, A. (2016). Elebakartasunetik heteroglosiara: Gaztea Irratia, bernakularizazioa gazte-komunikabideen diseinu sozioestilistikoan. *Uztaro*, 97, 31-52.

- Eusko Jaurlaritz (2014). *V. mapa soziolinguistikoa, 2011*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua.
- Greenwood, D. J. & Levin, M. (2006). *Introduction to action research: Social research for social change*. Londres: SAGE.
- Ibarra, O. (2011). *Nafar euskal gazteen ahozko diskurtsoa*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Lantto, H. (2018). New Basques and code-switching: Purist tendencies, social pressures. In C. Smith-Christmas, N. P. Ó Murchadha, M. Hornsby & M. Moriarty (arg.), *New speakers of minority languages: Linguistic ideologies and practices* (165-187. or.). Londres: Palgrave Macmillan.
- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J. & Urla, J. (2016). *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Puigdevall, M., Walsh, J., Amorrortu, E. & Ortega, A. (2018). «I'll be one of them»: linguistic mudes and new speakers in three minority language contexts. *Journal of Multilingual and Multicultural Development*, 39(5), 445-457.
- Pujolar, J. & González, I. (2013). Linguistic «mudes» and the de-ethnicization of language choice in Catalonia. *International Journal of Bilingual Education and Bilingualism*, 16(2), 138-152.
- Pujolar, J. & Puigdevall, M. (2015). Linguistic *mudes*: how to become a new speaker in Catalonia. *International Journal of the Sociology of Language*, 231, 167-187.
- Rodríguez-Ordóñez, I. (2016). *Differential object marking in Basque: Grammaticalization, attitudes and ideological representations* (doktore-tesia). University of Illinois at Urbana-Champaign, Urbana-Champaign.
- Soziolinguistika Klusterra (2016). *Hizkuntzen erabileraren kale neurketa. Euskal Herria, 2016*. http://www.soziolinguistika.eus/files/hekn2016-_eu_1.pdf helbidetik eskuratu.
- Urla, J., Amorrortu, E., Ortega, A. & Goirigolzarri, J. (2018). Basque standardization and the new speaker: political praxis and the shifting dynamics of authority and value. In P. Lane, J. Kosta & H. de Korne (arg.), *Standardizing minority languages: Competing ideologies of authority and authenticity in the global periphery* (24-46. or.). New York: Routledge.
- Walsh, J. & O'Rourke, B. (2014). Becoming a new speaker of Irish: linguistic mudes throughout the life cycle. *Digithum*, 16, 67-74.
- Woolard, K. (2011). Is there linguistic life after high school? Longitudinal changes in the bilingual repertoire in metropolitan Barcelona. *Language in Society*, 40(5), 617-646.

Aurkibidea / Índice

- 11 Aitzinsolasa
- 13 Prólogo
- 15 Testu-corpusen informazio morfosintaktikoaren etiketatze automatikoa
hizkuntz ezagutzan oinarrituz: zenbait arazo, hainbat erronka
ITZIAR ADURIZ, JOSE MARI ARRIOLA
- 31 Bertsolaritzaren genealogia subalternoak
LUZIA ALBERRO, K. JOSU BIJUESCA
- 47 Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-ikerketa baten
behinbehineko emaitzak
ESTIBALIZ AMORRORTU, ANE ORTEGA, JONE GOIRIGOLZARRI
- 63 Garaziko euskararen azterketa diafasikoa
ALEXANDER ARTZELUS MUXIKA
- 81 Berridazketak Sarrionandiaren poesian eta Saizarbitoriaren *Egunero hasten
delako* nobelan: hurbilpen genetiko bat
MIKEL AYERBE SUDUPE
- 95 Somorrostro, mendebaldeko euskararen muga
GOIO BAÑALES, MIKEL GORROTXATEGI
- 113 Euskara sasoian? Euskararen sozializazioa Gasteizko
pilota-elkarte batean
IÑIGO BEITIA
- 127 Euskal hiztun natiboak, ez-natiboak eta hitanoa
GARBIÑE BEREZIARTUA ETXEBERRIA, BEÑAT MUGURUZA ASEGINOLAZA
- 141 Lingüística Histórica: estado actual
LYLE RICHARD CAMPBELL
- 163 Lenguas y sociolingüística en el interior del País Vasco en el siglo XIX:
testimonios del Archivo Zavala
BRUNO CAMUS BERGARECHE, SARA GÓMEZ SEIBANE

- 177 Les verbes psychologiques du basque : typologie et diachronie
DENIS CREISSELS, CÉLINE MOUNOLE
- 195 Testu-generoaren irudikapena eta erabilera ahozkoaren
didaktikan
LEIRE DIAZ DE GEREÑU LASAGA, ITZIAR IDIAZABAL GORROTXATEGI, LUIS MARI
LARRINGAN ARANZABAL
- 209 Zentsura-ikasketak gaur egun: aplikazioa euskal literaturan
AMAIA ELIZALDE ESTENAGA
- 223 Azentuazioaren eremu sintaktikoak mugatzen
ARANTZAZU ELORDIETA
- 237 Sintaktikoki etiketatutako euskarazko corpus historikoa
eraikitzen
AINARA ESTARRONA, IZASKUN ETXEBERRIA, RICARDO ETXEPARE, MANUEL
PADILLA-MOYANO, ANDER SORALUZE
- 253 Ahozkotasanaren didaktika ikuspegi dialektikotik abiatuta
AINHOA EZEIZA, JAVIER ENCINA
- 267 Ahozko euskararen erabilera eskolan: gako zenbait irakasleen prestakuntzarako
INES M. GARCIA-AZKOAGA, OLATZ BENGOETXEA, JOSUNE ZABALA
- 283 El corónimo navarro *Salazar / Zaraitzu*: origen y desarrollo de su doble
denominación
ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRE
- 295 *Fontes Linguae Vasconum*: orígenes y documentos para una Historia
del Euskara
JOAQUÍN GORROCHATEGUI
- 315 Euskal literatura itzuliaren historiografia bateraturantz
MIREN IBARLUZEA SANTISTEBAN
- 329 Basque among the world's languages: a typological approach
IVÁN IGARTUA
- 351 Familias vascohablantes: propuesta de definición desde la socialización
lingüística
PAULA KASARES
- 363 Formation linguistique de basque aux enseignants, pour un enseignement
bilingue à parité horaire au Pays Basque Nord
BEÑAT LASCANO
- 375 Eñaut Etxamendiren obra narratiboaren ekarpena euskal poetika erruralari
ITZIAR MADINA
- 391 Erdaretarako literatur itzulpena: zeharkako eta zuzeneko itzulpenaren arteko
muga lausoa
ELIZABETE MANTEROLA AGIRREZABALAGA

- 405 Ahozko euskararen irakaskuntzarako irakasleen prestakuntza: berrikuntza didaktikoa eta soziala?
IBON MANTEROLA
- 421 Enkarterriko PI-(h)aran/(h)uri motako euskal toponimoak
MIKEL MARTÍNEZ ARETA
- 437 Diachronical hypotheses accounting for synchronic variation: the case of the Basque particle *ote*
SERGIO MONFORTE
- 453 Jardueraren azterketa irakasleak prestatzeko bide: debatearen ikas-irakaskuntzaren adibidea
AROA MURCIANO EIZAGUIRRE, ARANTZA OZAETA ELORTZA
- 467 Hausnarketa zenbait euskal literatura-ikerketetz
MARI JOSE OLAZIREGI
- 485 Ahozko euskara *Kolegioko ikastresna* ikasmaterialean
ARGIA OLÇOMENDY
- 501 Euskararen postposizioak
JAVIER ORMAZABAL
- 517 Hitz-ordenaren eragina zenbait ezaugarri gramatikalen erabilera-maiztasunean
LUIS PASTOR
- 533 Differential D-marking on proper names? A cross-linguistic study
IKER SALABERRI
- 547 Externalization and morphosyntactic parameters in Basque
HISAO TOKIZAKI
- 561 XIX. mendeko Debagoieneko testuez zenbait argitasun: egiletasuna eta iturriak
OXEL URIBE-ETXEBARRIA
- 579 Euskarazko perpausik gabeko azpikonparazioak
LAURA VELA-PLO
- 595 Latinaren aurreko osagai indoeuroparra Euskal Herriko toponimian: bukaeran -(iz)amo duten leku-izenak
LUIS MARI ZALDUA

Izenburua/Título:

Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari/Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca

© Argitaratzaileak/Editores:

Ekaitz Santazilia, Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga, Borja Ariztimuño

© Egileak/Autores:

Itziar Aduriz, Jose Mari Arriola, Luzia Alberro, K. Josu Bijuesca, Estibaliz Amorrortu, Ane Ortega, Jone Goirigolzarri, Alexander Artzelus Muxika, Mikel Ayerbe Sudupe, Goio Bañales, Mikel Gorrotxategi, Iñigo Beitia, Garbiñe Bereziartua Etxeberria, Beñat Muguruza Aseginolaza, Lyle Richard Campbell, Bruno Camus Bergareche, Sara Gómez Seibane, Denis Creissels, Céline Mounole, Leire Diaz de Gereñu Lasaga, Itziar Idiazabal Gorrotxategi, Luis Mari Larringan Aranzabal, Amaia Elizalde Estenaga, Arantzazu Elordieta, Ainara Estarrona, Izaskun Etxeberria, Ricardo Etxepare, Manuel Padilla-Moyano, Ander Soraluze, Ainhoa Ezeiza, Javier Encina, Ines M. Garcia-Azkoaga, Olatz Bengoetxea, Josune Zabala, Roberto González de Viñaspre, Joaquín Gorrochategui, Miren Ibarluzea Santisteban, Iván Igartua, Paula Kasares, Beñat Lascano, Itziar Madina, Elizabete Manterola Agirrezabalaga, Ibon Manterola, Mikel Martínez Areta, Sergio Monforte, Aroa Murciano Eizaguirre, Arantza Ozaeta Elortza, Mari Jose Olaziregi, Argia Olçomendy, Javier Ormazabal, Luis Pastor, Iker Salaberri, Hisao Tokizaki, Oxel Uribe-Etxebarria, Laura Vela-Plo, Luis Mari Zaldua

© Argitaratzailea/Edita:

Nafarroako Gobernua/Gobierno de Navarra

Kultura eta Kirol Departamentua/Departamento de Cultura y Deporte

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia/Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana

Lanak adituek berrikusi dituzte, itsu bikoitzeko sistemaren bidez/Los trabajos han sido revisados por pares doble ciego.

Diseinua eta maketazioa/Diseño y maquetación:

Kö estudio

Imprimaketa/Impresión:

Linegrafic

ISBN: 978-84-235-3561-3

LG/DL: NA 1438-2020

Sustapena eta banaketa/Promoción y distribución:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa/Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra

Navas de Tolosa, 21

31002 Iruña/Pamplona

Tel.: 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es

<https://publicaciones.navarra.es>

Fontes Linguae Vasconum 50 urte.

2019an 50 urte egin zituen Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea Erakundeak argitaratzen duen *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta* euskal hizkuntzalaritzako aldizkariak.

Horren gorazarre, liburu honek gaur egungo euskal hizkuntzalaritza- eta literatura-ikerketan zertan den erakutsi nahi du. Eskarmentu handiko ikertzaileek eta belaunaldi berriek bat egin dute argitalpen honetan, besteak beste, dialektologia, hizkuntzaren didaktika, filologia, gramatika teorikoa, hizkuntz tipologia, hizkuntzalaritza historikoa, itzulpengintza, literatura, onomastika eta soziolinguistika hizpide dituztela.

La revista de lingüística vasca *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta*, publicada por la Institución Príncipe de Viana del Gobierno de Navarra, cumplió 50 años en 2019.

En homenaje de la efemérides, este libro pretende dar cuenta del estado actual de la investigación en lingüística y literatura vascas. Investigadores de gran trayectoria y nuevas generaciones se reúnen en esta publicación para tratar, entre otros temas, sobre dialectología, didáctica de la lengua, filología, gramática teórica, tipología lingüística, lingüística histórica, traducción, literatura, onomástica y sociolingüística.

ISBN: 978-84-235-3561-3



9 788423 535613